
Mundua eskolan Eskola munduan

Irakasleen prestakuntzarako eta ikasleekin Tutoretzan edo Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko Gizarte-Zientzietako irakasgaiari egin beharreko lanerako modulu didaktikoa

3. koadernoia

Lan-plangintza

Atariko

Hirugarren koaderno honetan, jarraitzeko iradokitzen den laneko plana azaltzen da. Jada azaldu denez, lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta bigarren hezkuntza osoko irakasle eta ikasleak dira xede. Ikasleekin egin beharreko lanean material hau tutoretzan edo gizarte-zientzietako irakasgaiari garatzeko sortu da.

Laneko planak irakasleen prestakuntzarako proposamen bat eta ikasleekin jarduteko proposamen bat osatzen ditu, eta bata zein bestea estrategia didaktiko bereberan oinarritzen dira: lekukotasunean.

Ikuspegi praktikoenetik modulu didaktiko honek oinarritzko proposamen bat hartzen du abiapuntu. Irakasleekin egin beharreko 55 minutuko bi saio eta ikasleekin egin beharreko 55 minutuko bi saio. Lau fitxatan egituratzen da: aurreikusitako lau saioetako bakoitzerako fitxa bat.

Nabarmendu behar da hemen oinarritzko proposamen bat eskaintzen dela, eta metodologia berberarekin aurrera jarraitzeko aukerak mugagabeak direla. Lekukotasunak erabiltzen dituen lan-eredu hau behin inplementatu ondoren, komenigarritzat jotzen den saio guztietan errepikatu, garatu eta ugaritu ahal da.

Proiektu horretan lankidetzaren sektorearen eta Euskadiko hezkuntza-arloaren elkarrekiko ezagutza handiagotu nahi da. Hori laneko planean jasota dago, eta honako ardatz hauek garatuko dira:

- GGKEei laguntzea, Hezkuntza Sailaren ekimenetan parte har dezaten: esaterako, Prest_Gara ekimenean (irakasleen prestakuntza); 'Partekatuz ikasi' berrikuntza- edo elkartruke-ekimenean; edo 'Bikaintasunerantz' edo 'Eleaniztasunerantz' ekimenean.
- GGKEak ikastetxe publikoekin harremanetan jartzea, baldin eta erakundeen proposamenak ikaste-txeetan egiteko baldintza espezifikoak betetzen badira.
- Prest_Gara proposamenaren ildo zehatzak garatzea, munduko hainbat lekutako errealitate zehatzen bidez.
- Munduko eta tokiko ikuspegitik garatzen ari diren esperientzietan sakontzea, Hezkuntza Sailak ematen dituen sarien eremuan.
- Hezkuntza-metodologiaren inguruan hartu-eman eta ikaskuntza eremuak sortzea.
- DBHko eta Batxilergoko hezkuntza-curriculumean Ekialde Ertainari eta Afrikari buruzko ezagupenak txertatzeko baliabide didaktikoak eskura jartzea.

Lehen atala

Mundua eskolan

Munduak eskolari dei egiten dio

Modulu didaktiko honen lehenengo atalak hezkuntzaren esparruari dei egiten dio irakasleen aldetik, eta munduaren errealitateari buruzko azalpena eskatzen dio. Planetan egoera zailetan eta txarretan bizi direnen errealitatea ikustean eta ulertzean datza. Ikuspuntu honetatik *“dei egiten dio munduak eskolari”*.

Lehenengo atal honetan, modulu didaktikoaren edukiak funtsezko ardatz bat dauka: irakasleei prestakuntza ematea, errealitate horren lekukoen bitartekaritzaren bidez. Horretan, GGKEek, gizarte zibileko beste erakunde batzuek eta lankide boluntarioek parte hartuko dute, baina hainbat idazle eta kazetarik ere eman-go dute euren lekukotasuna.

Prestakuntza hau bitartekoa da, munduaren aniztasuna eta konplexutasuna ikasleei hobeto jakinarazi ahal izateko. Gainera, eta egiaztatu ahalko denez, neurri handi batean, irakasleen prestakuntzarako proposamen honek autoprestakuntzarako proposamenaren izaera dauka. Bizipenak ezagutzean, haien protagonista izatean, jardunbideak erakustean eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren ikuspegia sustatzeko metodologia kohezitzaileak eta parte-hartzaileak garatuz ikastean datza.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ikastetxeekin lankidetzan antolatuko ditu saio horiek, eta ikastetxeei aukera eskainiko die lankidetzako eta elkartasuneko prozesuen zuzeneko lekukoen testigantzak jasotzeko.

Lehenago azaldu denez, irakasleentzako oinarrizko prestakuntza-proposamena bi orduko bi saioak osatzen dute. Lehenengo saioaren xedea da elkartasunari buruz gehienbat politikoa den gogoeta egitea: munduan zer gertatzen den, horrek nola eragiten digun edo zer egin dezakegun. Bigarren saioak elkartasunari buruz gehienbat pertsonala den dimentsioa du hizpide: nire inguruan dauden bidegabekeria, desberdintasun eta sufrimenduek zein aldetatik eta nola ukitzen nauten.

Azkenik, prestakuntza horretan parte hartuko duten pertsonen biziki gomendatzen zaie prestakuntza hori hasi aurretik dokumentazio honen 2. koaderno 15 edo 20 minutuz irakur dezatela. Erabilgarria eta interesgarria izango zaie, eta gainera irakurketa hori atariko hobezina izango da prestakuntza horretarako.

1. saioaren fitxa

Elkartasunaren dimentsio politikoa

Jarduera nagusia	Iruzkina
<p>Jarduera nagusia entzutean datza. Saioa hasteko, Ryszard Kapuscinski-ren lekukotasun idatzia <i>entzutea</i>; saioa amaitzeko, Mikel Ayestaran kazetariari egindako elkarrizketa <i>entzutea</i>, bideo batean; eta horrek guztiak geugan sortzen dituen oihartzunak modu pertsonalean eta taldean <i>entzutea</i>.</p> <p>Gainera, horma-irudi bat ere erabiliko dugu laguntza gisa. Horma-irudi horrek hiru eremu izan beharko ditu banatuta: <i>horma</i>, <i>adeitasuna</i> eta <i>gatazka</i>; eremu horietan, gure ondorioak jarriko ditugu post-it batzuk erabiliz.</p>	<p>Saio hau sortzean kontuan hartu da ez dela ezinbestekoa kanpoko prestatzaile batek saioa dinamizatzeke lana egitea. Prestakuntza honetan parte hartzen duen edozein pertsonak, edo klaustroko edozein kidek, dinamizazio-zeregina bere gain hartu ahal du; horretarako, fitxa honetan ematen diren jarraibideak bete besterik ez du egin behar. Alde horretatik, autoprestakuntza dela esan genezake.</p> <p>Nolanahi ere, ikastetxe batek kanpoko prestatzaile baten laguntza eduki nahi badu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin harremanetan jarri ahal da.</p>

• Lehenengo urratsa. Prestakuntza-moduluaren aurkezpen orokorra irakasleen aurrean (5 minutu)

Egingo den lan espezifikoa aurkezpen orokor gisa, ideia hauek erabil daitezke.

Dakizuenez, Mundua Eskolan – Eskola Munduan modulu didaktikoan parte hartuko dugu. Elkartasun-senean hezteko esku-hartze pedagogikoko proposamena da. Irakasleen prestakuntzarako nahiz ikasleekin tutoretzan edo Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko gizarte-zientzietako irakasgaien egin beharreko lanerako prestatu da. Irakasleen prestakuntzak 55 minutuko bi saio dauzka, eta saio horiei ekingo diegu orain.

Garatuko dugun prestakuntza, oinarrian, hausnarketa pertsonal eta kolektiborako gonbidapena da, eta honako baieztapen hauek ditu oinarri:

• Bizitza pertsonala, bizikidetzeta eta munduaren bilakaera bideraezinak dira, elkartasunak dakarren guztia garatzen ez bada. Giza harremanen ezaugarri bakarrak oihaneko legea eta norberekokeriaren eta indibidualismoaren bulkaden menderakuntza izango lirakeke.

• Elkartasunak giza existentzian hain zeregin estrategikoa daukanez, zentzuzkoa da pentsatzea gizakiaren enpatia-gaitasunaren esangurak eta elkartasunaren hautua egiteko aukerak lekua izan ahal dutela hezkuntzaren esparruan. Behintzat, haiei buruzko hausnarketa egitea merezi du.

Xede hori dauka irakasleekin egin beharreko prestakuntza honek, baita ikasleekin egin beharreko lanerako proposamenak ere: elkartasunaren esangurari eta ondorioei buruzko hausnarketa egitea, alegia.

• Bigarren urratsa. Hausnarketarako testu baten irakurketa pertsonala (10 minutu)

Bi testu eskaintzen dira gaien sartzeko. Lan-proposamena lehendabiziko testuarekin egingo da. Prestakuntza hau hasteko erabiliko dugun testuaren fotokopiak banatuko ditugu:

“Bestearekin topatzea, XXI. mendeko erronka” izenburu duen Ryszard Kapuscinski-ren testuarekin hasiko gara lanean. Kazetari eta idazle horrek emandako hitzaldi bat da; gerora, hitzaldi hori izenburu bera duen liburu batean sartu zen. Testua banaka irakurriko dugu eta guretzat iradokitzaileen, hunkigarrien edo garrantzitsuen diren ideiak aukeratuko ditugu.

• **Hirugarren urratsa. Lana talde txikietan** (20 minutu)

Talde txikitan antolatuko gara, gure hausnarketak bateratzeko. Apurka sortzen diren ideia guztiak post-it batzuen bidez laburtu beharko ditugu. Gure zalantza, kontraesan eta abar guztiak... ere bai. Aurretiaz horma-irudi handi bat prestatuta eduki behar dugu, hiru ataletan egituratuta, atal bakoitzak bere izenburua duela:

horma

adeitasuna

gatazka

Testu honek iradoki dizkigun gauzei buruz solasaldia egingo dugu talde txikietan. Sortzen diren ideia guztiak hor laburtuko ditugu, post-it batzuen bidez. Ideia guztiak zutabe horietako batean sartzen dira, ideia onak edo txarrak direla ere, ongi sentiarazten edo deserosotasuna sorrarazten digutela ere. Hango dena. Horma-irudi hori erabiliko dugu bi saioak lantzeko ardatz gisa.

Horma-irudia denon artean apurka bete ondoren, talde bakoitzean eztabaidatu duguna labur-labur bateratu ahal dugu.

• **Laugarren urratsa. Bideo bat ikusten dugu** (20 minutu)

Saioa amaitzeko 15 minutuko bideo bat ikusiko dugu. Bideo hori prestakuntza-programa honetarako prestatu da, Mikel Ayestaran kazetariari egindako elkarrizketa batekin. (15 minutu)

Bideoa ikusi ondoren eta joan aurretik, horma-irudian gutxienez hiru post-it jarriko ditugu, elkarrizketa horretan ikusi edo sentitu ditugun gauza guztien artetik aztarnarik biziena utzi digun horri buruz. (5 minutu)

Jarduera horrekin lehenengo saioa amaitzen da eta bigarren saiorako oinarria prestatuta uzten da.

2. saioaren fitxa

Elkartasunaren dimentsio pertsonala

Jarduera nagusia	Iruzkinak
<p>Bigarren saio honetako jarduera nagusia lankidetzako eta elkartasuneko prozesuetan zuzeneko bizipena izan duen pertsona baten bertatik bertarako lekukotasuna entzutean datza.</p> <p>Pertsona horri eskatuko diogu 20 minutuz lau punturi buruz hitz egin diezagula: (1) munduan zer ikusi duen, (2) lehentasunak non dauden, (3) hemendik eta eskolatik zer egin ahal dugun eta (4) alderdi pertsonalean eta alderdi humanoan ikasi dituen gauzetatik zein den garrantzitsuena.</p>	<p>Prestakuntza horretan bilatzen dena ez da kontzeptuak ikastea edo ezagutza teknikoak atxikitzea, baizik eta elkartasunaren transzendentziari buruzko hausnarketa etiko bat pertsonei sentiaraztea.</p> <p>Horrekin batera, bigarren gakoak da hausnarketa hori hezkuntza-zereginetan txertatzea da: Nola partekatu ahal dugu ikasleekin hausnarketa hori? Gonbidatuarekin sortu ahal den solasaldiak norabide hori izan ahal du.</p>

• Lehenengo urratsa. Lehenengo saioan taxutu dugun horma-irudiaren irakurketa (5 minutu)

Bigarren saio hau hasteko, lehenengo saioan egin dugun post-itezko horma-irudia irakurriko dugu.

Gurekin dagoen pertsonari entzun baino lehen, lehenengo saioan idatzi ditugun post-itak berriro irakurriko ditugu. Berrirakurketa horretarako lagungarriak izan ahal diren bi galdera egingo dizkiogu geure buruari:

- Zer pentsatzen dugu horrei buruz, zenbat horma mota daude, segurtasuna ematen al digute?
- Zein puntutaraino uste dugu daukagun guztiaren jabe garela eta daukagun hori babesteko horrek behar ditugula?

• Bigarren urratsa. Lankidetzaren arloan bizipena izan duen pertsona baten bertatik bertarako lekukotasuna (30 minutu, galderekin)

Bidea emango diogu gonbidatuari; hark elkartasun eta lankidetzaren prozesuetan izandako bizipenari buruzko lekukotasuna emango digu.

Gure gonbidatuari entzungo diogu 20 minutuz. Geroago 10 minutu edukiko ditugu solasaldirako.

Solasaldi dinamikoa, galdera eta erantzun laburrekin moderatzea gomendatzen da, ahalik eta partaidetza zabalena izateko.

• Hirugarren urratsa. Nabarmendu beharreko bi ekarpen pertsonal (10 minutu)

Pertsona bakoitzari bi post-it emango dizkiogu. Jarraian agertuko diren galderak ere banatuko ditugu.

- Non kokatzen gara pertsonalki bestearekin topatzean?
- Errealitatea ezagutu nahi dut ala, aitzitik, ezagutu ez eta eroso geratu nahi dut?
- Nola begiratu errealitateari, gero eta anitzagoa den mundu batetik?
- Non dago lekua pertsona behartsu eta babesgabeentzat?
- Adeitasunak zerikusia al dauka enpatiarekin eta elkartasunarekin?
- Nola izan gaitezke solidarioak hain ezberdina den mundu batean?
- Zer pizten du guran ikasgeletan atzerritar haurrek dakarten zailtasun erantsi horrek?
- Nola prestatzen gara etorkizun zalantzazko eta anitz baterako?

Banatu ditugun galdera horiek zeregin iradokitzailea dute. Kontua ez da galdera guzti-guztiei erantzutea, baizik eta galderak irakurtzean guran piztu den horri buruz hausnartzea. 10 minutu daukagu hausnarketa hori egiteko. Amaitzean, partaide bakoitzak azken hausnarketak bi post-itetan laburtu beharko ditu. Hor jar daitezke gure ondorioak adeitasunarekin hartu dugun konpromisoa edo jende-mugimendu berriak direla eta daukagun beldurrak.

• **Laugarren urratsa. Bateratzea** (10 minutu)

Bi saio hauetan landu eta bizi dugun guztiari buruzko ondorio batzuk bateratzeko hamar minutu gertzen zaizkigu.

Amaitzeko, horma-irudiari azken begirada bat egingo diogu eta gure ondorioak partekatuko ditugu galdera nagusi baten inguruan: zer ikasi dugun eta ikasleekin hori nola partekatu ahal dugun.

Bigarren zatia

Eskola munduan

Eskolak munduari dei egiten dio

Munduak eskolari dei egiten dio, baina ez hori bakarrik. Eskola ere mundura doa, munduaz interesatzeko, mundua ulertzeko eta munduan ibiltzen ikasteko. Gaur egungo testuinguruan, antipoda geografikoak eskuragarri ditugu, hurbil. Batetik, Internet daukagu, eta planetako edozein errealitatetara edo bazterretara hurbiltzen gaitu. Bestetik, gure eskualdean bertan munduko hainbat lekutako pertsonak eta lekukoak aurki ditzakegu. Gure eskola bera horren isla da. Laburbilduz, proiektu honetan inguruabar bikoitz hori planteatzen da.

Errealitatean tokiko eta munduko eremuak eskura daude. Guk bi aukera ditugu: errealitate horri bizkarra ematea ala errealitate horri gerturatzeko saiakeria. Atea jo, eta planetako auzokideak ezagutzeko interesa adieraz dezakegu. Proiektu honek proposatzen du pertsona desberdinengana hurbiltzeak –ezagutzeko eta esaten dutena entzuteko– hezkuntza-tresna izan behar duela. Zuzeneko lekukotasunak izango dira, eta bestelako egoeretan bizi diren pertsonak adieraziko dituzte. Horrela, mundua beste ikuspuntu batetik ikusteko biziaren ere hedatuko dugu.

Bizipen hori ikus-entzunezko baliabideekin edo prentsako zein Interneteko informazio-bilaketekin konbina daiteke. Laburbilduta, gure ikasleek lehen eskutik entzun ditzakete errefuxiatuen, immigranteen, giza eskubideen defendatzaileen eta beste kultura edo erlijio batzuetako pertsonen edo beste egoera sozial eta politikoko batzuetan bizi diren pertsonen kontakizunak.

Hezkuntza-proiektu honen interesgune nagusia arrazismoari, bazterkeriari eta etiketa kolektiboko diskriminazioari aurrea hartzea da. Pertsonen duintasunaren, enpatiararen eta elkartasunaren benetako esanahia ulertzea bilatzen dugu. Hori guztia, pertsonen aurrez aurre eta begietan begiratu egingo dugu: lekukotasunak urrun dauden pertsona horiek hurbilduko dizkigu. Mundua eskolara eramango dugu.

Hezitzaileek beraiek edo ikastetxeak arduratu beharko dute gure ingurunean bizi diren beste errealitate batzuen lekukoen testigantzak bilatzeaz. Nolanahi ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia ikastetxeekin elkarlanean arituko da laguntza eta aholkua eskainiz, modulu didaktiko hau bultzatzeko.

Planteamendu hori bat dator ikasle etorkinei arreta emateko II. Planean aurreikusita dagoenarekin, eta laneko plan batean jasota dago. Plan horrek honako helburu hauek garatzen ditu:

- Gure herrian edo eskualdean dagoen jatorrien aniztasuna ezagutzea.
- Leku horietan dauden egoera batzuk ezagutzea, komunikabideen eta Interneten bitartez.
- Munduko beste bazter batzuetatik gure ingurunera etorri diren pertsonak eskolara gonbidatzea, haien kontakizuna eta lekukotasuna entzuteko.
- Munduko eta gure inguruneko arrazismoari, bazterkeriari eta diskriminazioari buruzko hausnarketa egitea.
- Pertsonen duintasunak, giza eskubideak, enpatia, elkartasunak eta antzekoak diren beste kontzeptu batzuek zer esanahi praktikoa eta zehatz duten aztertzea, entzun ditugun kontakizunei lotuta.
- Aukeratzeko gaitasunaz jabetzea eta ahalmen horrek ematen dizkigun aukeretatik emaitzak ateratzea.

Ikasleekin egin beharreko 1. saioaren fitxa

Jarduera nagusia	Iruzkina
<p>Jarduera nagusia gure ingurunean bizi den eta beste herrialde batetik etorri den pertsona baten bizitzaren lekukotasuna entzutean datza. Honaino heltzeko bide luze eta zaila egin duen pertsona baten lekukotasuna. Gure eskola-komunitatean bertan edo gure eskualdean bila dezakegu.</p> <p>Egokien iruditzen zaigun norbait aukeratu ahal dugu; nolana ere, gure herriko etorkinen artean, zalantzarik gabe, guri gauza asko esateko dauzkaten pertsonak aurkituko ditugu. Gurera bisitan etorriko den pertsona aukeratutakoan, eskolara etortzera gonbidatuko dugu guri bere bizitza kontatzeko, hona zerk ekarri duen eta nolako egoera pertsonala duen azaltzeko...</p>	<p>Jarduera honetarako iradokitzen dugu ahal dela bizimodu latza eta bidegabekeria zuzenean jasan duen norbait gonbidatzea, eta ez laguntzako edo elkartasuneko erakunde batean lan egiten duen edo antolatuta dagoen norbait.</p> <p>Guretzat bere zuzeneko lekukotasuna da interesgarria; izan ere, bere aurpegia, bere hitzak eta bere kontakizunak ez digute aukerarik emango arazotik ihes egiteko, ezta eroso geratzeko ere.</p> <p>Interesgarria litzateke pertsona horrekin solasean aritzea berarengana hurbiltzeko eta gertatzen ari dena edo gertatu dena ulertzeko.</p>

• Lehenengo urratsa. Hezkuntza-moduluaren aurkezpen orokorra ikasleen aurrean

Egingo den lan espezifikoa aurkezpen orokor gisa, ideia hauek erabil daitezke.

Bi orduko bi saiotan hausnarketa egingo dugu, elkartasunak duen esanahiari buruz. Inor animatuko da zein esanahi duen esatera?

(Hainbat erantzun entzungo dira)

Bai, hitz bat da esanahi horren laburpena: laguntza. Elkartasunak esan nahi du laguntza ematea horren beharra izan dezakeenari.

Une batean edo bestean, guztiok beharko dugu beste pertsona batzuen laguntza. Elkartasuna ezinbestekoa da, bidegabekeria, desberdintasun eta sufrimendu larriak daudelako, arrazoi naturalek edo beste hainbat bidegabekeriarik sorraraziak.

Baina elkartasunez jokatu ahal izateko, beste pertsona batzuen sufrimenduaren aurrean sentikor izan behar dugu. Beste pertsona batzuei gertatzen zaiena eta munduan gertatzen dena begiratu, ikusi, entzun, sentitu. Entzun eta ikusi behar dugu.

Horregatik, hain zuzen ere, bi saio hauetan egingo dugun lanaren abiapuntua izango da hainbat zailtasun bizi izan dituela kontatu ahal digun pertsona baten bizitzaren lekukotasuna entzutea.

Lehenengo orduan gure gonbidatuaren istorioa entzungo dugu. Bera ... (e)n bizi da, baina ... (e)n jaio zen (bere istorioaren aurkezpen labur-laburra erantsi).

Lehenengo bere istorioa kontatuko digu, gero aukera izango dugu beharrezkotzat jotzen dugun guttia berari galdetzeko. Jakina, gonbidatuarekin errespetuz jokatu dugu.

• Bigarren urratsa. Gonbidatutako pertsonaren lekukotasuna entzuna

Gure gonbidatuari entzungo diogu.

Lekukotasunaren iraupena gonbidatuaren beraren aukeran dago; baina iraupen egokia 15 eta 25 minutu bitartean egon daiteke. Baliteke gonbidatuak lehenengo hitzaldi labur-labur bat egin eta hasiera-hasieratik ikasleen galderei erantzun nahi izatea. Laneko plana gonbidatuaren gogoaren arabera moldatu beharko da.

• **Hirugarren urratsa. Galdetu eta entzun**

Gonbidatuak lehenengo aurkezpena egiten amaitu ondoren, galdetzeko eta entzuteko fasea hasiko da. Irakasleek bigarren mailako zeregina hartuko dute; ahal dela, ikasleek hartuko dute galdetzeko ekimena. Nolanahi ere, isilune luzeak gertatzen badira (ez dio ardurara isilune laburrak badaude, baliteke lekukotasunaren inpaktua barneratzen ari izatea), irakasleek saioa dinamizatu ahal dute galderaren bat eginez.

• **Laugarren urratsa. Lehenengo saioa itxi**

Denbora amaitu ahala, irakasleek eskerrak emango dizkiote gonbidatuari bere lekukotasunarengatik, eta hausnarketa piztu ahal duten galdera batzuk zintzilik utziko dituzte, bigarren saioa prestatzeko.

Denbora amaitzen ari zaigu. Gura gonbidatuak eman digun lekukotasunarengatik eskerrak emateko, mesedez, txalo bero bat.

Hau lehenengo saioa izan da. Bigarrena geratzen zaigu. Gaur entzun dugunaren ostean, eta bigarren saio hori prestatzeko, zuen kontura egin ahal dituzuen lan batzuk proposatu nahi dizkizuet:

- Gure gonbidatuaren jaioterriari buruzko informazioa Interneten bilatzea.*
- Hainbat hitzen definizioa bilatzea, adibidez bidegabekeria, desberdintasuna, enpatia eta elkartasuna.*
- Sentitu eta pentsatu dugunari buruz hausnarketa egitea, eta gure ustez garrantzitsuena izan denari buruz ohar batzuk idaztea.*

Oharra: Modulu didaktiko honek eskaintzen duen eskema oinarritzokoa eta sinplea da, lekukotasun bakar batean oinarritzen da, baina gidoi berberarekin egokitzat jotzen diren lekukotasun guztiak jasotzen dituen laneko plan bat garatu ahal da. Areago, ikasturte osoko programazio bat egin ahal da, gure ingurunean bizi diren eta hainbat kontinente eta herrialdeetatik datozen pertsonen bisita planifikatuz. Modu hobezina da mundua eta bere errealitatea ikasgelatik ezagutzeko.

Ikasleekin egin beharreko 2. saioaren fitxa

Jarduera nagusia	Iruzkinak
<p>Jarduera nagusia, entzun dugun lekukotasunetik abiatuta elkartasunaren esanahiari eta ondorioei buruz hausnarketa egitean datza.</p> <p>Lehenengoz, bakarka eta introspekzio gisa hausnartzea. Talde txikian hausnarketa egitea eta talde handian hausnarketa egitea.</p> <p>Azkenik hausnarketa egitea ondorio batzuk lortzeko, eta ondorio horien bidez eragin praktikoa lortzeko hausnarketa egiten dutenen bizitzan eta pertsona bakoitzak hartu behar dituen erabaki, hautu eta aukeretan.</p> <p>Elkartasuna pertsona bakoitzaren kontzientzia etikoan sortzen da. Elkartasuna da gizakiaren aukerarik bereizien eta unibertsalena. Gizakiak gara, benetan kontzientziaren arabera aukeratzeko ahalmena daukagulako.</p>	<p>Hausnarketaren interesgune gisa puntu bat jartzea merezi du, enpatiaren eta elkartasunaren artean dagoen harremana pertsonari adieraztea, alegia.</p> <p>Enpatia gizakiaren ahalmen bat da, eta horri esker, nola edo hala, beste pertsona batzuen sufrimendua geurea balitz bezala sentitzen dugu. Gure gonbidatuari entzutean ziurrek horixe sentitu dugu.</p> <p>Elkartasuna, gure aukeratzeko ahalmenaren zati den aukera bat da. Elkartasuna aukeratzeko da, erabaki bat da.</p> <p>Beste pertsona batzuek kezkatzeko eta arduratzeko bidea ematen digun gaitasuna da enpatia. Elkartasuna, beste pertsona batzuen alde zerbait egiteko erabakia da. Gure aukeratzeko askatasunaren zati da.</p>

• Lehenengo urratsa: Hausnarketa pertsonala (8 minutu)

Jarduera pertsonal eta introspektibo batekin hasiko gara, eta gure gonbidatuaren bisitak ekarri ziguna goratuko dugu. Ikasleak bakarkako barneratze-ariketa bat isilik egitera animatuko ditugu.

Gogoan izango duzue, lehenengo saioa amaitzean, zuen ustez garrantzitsuena zenaren laburpena idazteko eskatu genizuen. Har itzazue ohar horiek abiapuntu gisa. Gure gonbidatuaren lekuan jartzeko saiaturako gara. Bizipen hori sorrarazteko, orri batean galdera batzuei erantzutea proposatzen dugu; hona hemen galdera horiek, adibidez:

- Guri gertatu balitzaigu, zer sentituko genukeen? Nola jokatu genuke haren egoeran?
- Gure herria kontatu diguten egoeran balego, zer pentsatuko genuke? Nola jokatu genuke muturreko egoera horietan?

• Bigarren urratsa. Izandako inpresioen berri eman (18 minutu)

Lanari ekingo diogu, talde txikietan (Erreferentzia moduan Phillips 6-6 metodologia har daiteke)

Eztabaidatu egingo dugu 5 edo 6 pertsonako taldeetan, hiru gairi buruz, 6 minutuko hiru tartetan. Proposatzen dena da bakoitzaren iritzien berri ematea gai hauei buruz:

- 6 minutuko lehen tartea. Entzun dugun lekukotasunak zer sentiarazi digun partekatuko dugu. Galdera garrantzitsu bat: horrelako errealitateak jakin eta ezagutu nahi ditugu ala nahiago dugu ez jakin, erosoago bizitzeko.
- 6 minutuko bigarren tartea. Taldeko kide bakoitza honako hitz hauek definitzen saiatuko da: enpatia, elkartasuna, desberdintasuna, bidegabekeria eta sufrimendua. Taldeak definizio bakoitzari buruzko iruzkinak egingo ditu.
- 6 minutuko hirugarren tartea. Pertsona batek bakarrik ezin du mundua konpondu; baina zer dago gure esku? Zer egin dezakegu?

• **Hirugarren urratsa. Lana talde txikietan** (20 minutu)

Talde txikietan lanean jarraituko dugu. Orain talde bakoitzak idatzizko lan bat egin beharko du, galdera batzuetatik abiatuta.

Galdera batzuk planteatzen dizkizuegu, zuek hausnarketa egiteko eta ondorio batzuk ateratzeko. Galdera hauexek dira:

- Zer egin dezakegu?
- Garrantzitsua al da guk 'besteari' begiratzea?
- Atzerritarrei beste moduren batean begiratu ahal diegu?
- 'Bestea' ikusten eta tratatzen dugun moduari dagokionez konpromisoren bat hartu ahal dugu? Diferentea denaren aurrean beldurretik eta mespretxutik askatu ahal gara?
- Ulertu ahal dugu denok berdina garela?
- Konpromisoren bat hartu ahal dugu gure inguruko bidegabekeria edo mina arintzeko?
- Zerbaitez arduratu ahal gara?
- Errealitatea hobetzen saiatzen den ekimenen batean laguntza eman ahal dugu?

Talde-lana bi zatitan antolatuko dugu. Lehenengoz minutu batzuek elkarrizketan arituko gara, egin ahal dugunari buruz. Gero talde bakoitza gauzak hobetzen lagundu ahal duten bost ideiatan ados jartzeko saiatuko da.

• **Laugarren urratsa. Bateratze-lana** (9 minutu)

Orain talde handian egin beharreko lan bat bilatuko dugu, ondorioak ateratzeko asmoz.

Talde bakoitzak bere bost ideiak azalduko ditu eta ahalegina egingo dugu lan hori taldeak partekatu ahal duen konpromiso batean laburbiltzeko.

Solasaldian agertuko diren kontzeptuak egituratzen lagundu dezake irakasleak. Saioa amaitzeko, lagun-garria izan daiteke enpatiar buruzko azalpen bat ematea, enpatia pertsona bakoitzaren barruan dagoen gaitasuna eta elkartasuna egin dezakegun hautu bat dela azaltzea.

Eranskina. Testu inspiratzaileak

Bestearekin topatzea, XXI. mendeko erronka

Ryszard Kapuscinski

Bestearekin, beste pertsona batzuekin topatzea, gure espeziearentzat esperientzia unibertsala eta funtsezkoa izan da beti. Arkeologoek esaten digutenez, lehenengo giza taldeak 30 eta 50 norbanako bitarteko tribu familiarrak ziren. Komunitate horiek handiagoak izan balira, azkar mugitzeko arazoak izango zituzketen. Txikiagoak izan balira, euren burua modu efizientean defendatzeko eta euren biziraupenarengatik borrokan aritzeko arazoak izango zituzketen. Gure tribu familiar txikia jatekoen bila zebilen, eta bat-batean beste tribu familiar batekin topo egin zuen. Deskubrimendu garrantzitsua izan zen: munduan beste pertsona batzuk zeuden. Ordura arte, talde primitibo horietako kideak ziur zeuden jende guztia ezagutzen zutena, eta hala bizi ziren. Baina gauzak zer diren, ez zen hala; antzeko izaki batzuk, beste pertsona batzuk ere bizi ziren han. Nola jokatu errebelazio haren aurrean? Zer egin? Zein erabaki hartu? Amorrutik bizirik oldartu behar zitzaizkien beste pertsona horiei, ala haiei arretarik eskaini gabe igaro eta aurrera jarraitu, ala haiek ezagutzen eta ulertzen saiatu?

Gure arbasoek duela milaka urte hartu behar izan zuten erabaki berbera daukagu guk gaur gure aurrean: nola jokatu behar dugu besteekin? Nolako jokaera izan behar dugu haiekin? Baliteke azkenean duelua, gatazka edo gerra sortzea. Artxibo guztietan daude gertakari horien testigantzak, eta halakoak dira mundu osoan barreiatuta dauden gudu-zelai eta aurriak, zenbatu ezin ahala testigantza. Jendeak hiru aukera zeuzkan Bestea topatzen zuenean: gerra aukeratu ahal zuen, bere buruaren inguruan horma bat altxatu, ala elkarrizketari ekin. Historia osoan, gizateria etenik gabe aukera batetik bestera mugitu da eta, sasoi eta kultura aldakorren mendean, bata edo bestea aukeratu du, eta ikusten dugunez zalantzatan ibiltzen da eta sekula ez dago erabat ziur, oinak ez ditu beti izaten lur irmoaren gainean. Zaila da gerra justifikatzea. Nire ustez, denak dira galtzaile, gerra gizakientzat hondamendia delako. Elkar ulertzeko, besteen zapatak jantzeko, ontasunerako eta zentzurako duten ezintasuna agerian jartzen du. Bestearekin topatzean, askotan ondorioa tragikoa da, odolez eta heriotzaz jantzitako katastrofe bat.

Jendeak horma handiak eta hobi sakonak eraiki zituen, hormek inguratuta eta hobiak isolatuta bizi izatera heldu zen, ideia batengatik: gaur egun, apartheid deitzen da ideia hori. Kontzeptu hori okerrez mugatu zen gaur egun desagertua den Hegoafrikako zurien erregimenaren politiketara. Aitzitik, apartheidaren denboraren behe-lainorik primitiboaren artean ere erabiltzen zen. Modu sinple batean azalduta, doktrina hori proposatzen dutenek zera aldarrikatzen dute: denok aske dira nahi duten moduan bizitzeko, baldin eta nigandik ahalik eta urrunen badaude, nire arraza, erlijio edo kultura berekoak ez badira. Auzia horrekin amaituko balitz!

Benetan, giza arrazaren egiturazko desberdintasunaren doktrina dugu begien parean. Tribu eta herri askoren mitoen artean uste oso bat dago, alegia, gizakiak gu bakarrik –gure klaneko, gure komunitateko kideak– garela, eta aldiz, besteak, gainerakoak, gizakiak baino beheragoko izakiak direla edo izakiak izatera ere heltzen ez direla. Txinako sinesmen zahar batek hobeto azaltzen du hori: txinatar ez zirenak deabruaren seme edo alabatza hartzen ziren, edo asko jota, patuaren biktimatza, txinatar jaiotzeko gauza izan ez zirelako. Sinesmen horren arabera, Bestea txakur gisa, arratoi gisa, narrasti zakar gisa irudikatzen zen.

Zein diferente zen Bestearen irudia Greziako kulturari; orduan, greziarren ustez, jainkoek gizakien itxura hartu ahal zuten, baita jendeak bezala jokatu ere! Orduan ezin zen esan heltzen ari zen bidaiaria, bidaiari heldu berria, pertsona bat ala gizaki-mozorroaz jantzitako jainkoa zen. Ziurgabetasun hori izan zen, hain zuzen ere, harako abegiaren kulturaren sustraietako bat; kultura horrek aginduta erabateko adeitasunez jokatu behar zen heldu berriaren, izaki ezezagun haren aurrean. (...)

Ateen eginkizun bakarra ezin da izan Bestearen aurka itxita egotea: ongi etorria emateko eta bera barrura sartzeko ere ireki ahal dira. Bidea ez da zertan erabili etsai diren soldadu-errenkadentzat; errepide ere izan ahal da, eta horren bidez jainko horietako bat, erromes jantzita, gugana hurbildu ahal da. Interpretazio horri esker, bizi garen mundua joriagoa eta anitzagoa izaten hasten da, eta horrez gain adeitsuagoa ere bai gurekin; mundu horretan guk geuk Bestea topatzeko gogoia izango dugu.(...)

Arazoa zen nola hurbildu Bestearengana, Beste hori arraza diferente bateko pertsona jakin bat, gureak ez diren sinesmen eta balioak eta kultura eta ohitura propioak dauzkan bat den aldetik. Aipa dezagun Bestearen kontzeptua normalean gizaki zuriaren, europar gizakiaren ikuspuntutik definitzen dela. Baina gaur egun, Etiopiako mendietan dagoen herririk batean zehar noala, makina bat haur doaz nire atzetik lasterka, pozarren seinalatzen naute eta “Ferenchi!” deitzen didate, “atzerritarra”, “bestea”, alegia. Besteak benetan Beste

Batzuk dira, baina Beste horientzat, ni neu naiz Bestea. Alde horretatik, denok gabiltza itsasontzi beran. Gure planetako bizilagun guztiak beste batzuk gara beste batzuentzat: ni haientzat, eta haiek niretzat. (...)

Gaur trantsiziozko sasoi batean bizi gara, gizarte planetario berri baterantz. Horren atzean faktore ugari daude: iraultza elektronikoa, komunikabide guztien garapena, sekula ikusi ez den garapena, garraioaren eta mugimenduaren aurrerabide handiak, eta gainera, belaunaldirik gazteenaren kontzientziaren eraldaketa. Nola aldatuko ditu horrek guztiak gure arteko harremanak eta beste kultura batzuekiko harremanak? Zein eragin izango du besteekin dudan harremanak nire kulturaren barruan? Oso zaila da erantzun bat ematea; izan ere, prozesua etengabea da eta gu geu, hausnarketaren elikagai den urruntasunik gabe, prozesu horretan buru-belarri sartuta gaude.

Mendetan zehar, gure planetan jende askearen talde murriz bat eta esklabo talde handi-handiak bizi ziren; gaur egun, aldiz, gero eta nazio eta gizarte gehiago daude, eta hauek guztiak euren balioaz eta garrantzi-az ohartzen dira. Prozesu hori sarritan zailtasun handien artean gertatzen da.

Etenik gabe egongo gara Beste hori topatzen, Beste hori etenik gabe sortuko da gure aurrean orainaren kaos eta zalapartatik. Baliteke Bestea, orain, gaur egungo munduaren kultura osatzen duten kontrako bi korrontetatik sortzea: korronte bat da gure errealitatearen globalizazioa; bestea, berriz, gure aniztasunaren, gure diferentzien, gure jatorriaren iraunarazpena. Baliteke Beste hori bi korronte horien seme edo alaba eta oinordeko izatea. Berria den Beste horrekin elkarrizketa eta elkar ulertzea lortzen saiatu behar dugu.

Urruneko beste batzuen artean hainbat urtean bizi izatearen esperientziak irakatsi dit beste izaki baten-ganako adeitasuna dela Bestearengan gizatasun gogoak izan dezakeen jarrera bakarra. Conradek zioenez, biok gogoia izango dugu dei egiteko “zeri eta sorginduta eta liluratuta sentitzeko gure gaitasunari mintzo zaion horrexeri, gure bizitzen inguruan dagoen misterio senari; gure erruki eta edertasun eta min senari; kreazio osoarekiko adiskidetasun sentimendu sorrari eta zenbatu ezin ahala bihotzen bakartasunarekin lotzen gaituen elkartasun-izaera sotil baina ikusezinari: ametsen elkartasunari, poztasunean, atsekabeen, iguripenetan, ilusioetan, itxaropenean, beldurrean, zeinetan eta gizaki batzuk besteekin lotzen dituen, giza-ateria osoa lotzen duen, hilak biziarekin eta biziak oraindik jaio ez direnekin lotzen dituen beldur horretan”.

Historia bakarraren arriskua (zati bat) **Chimamanda Ngozi Adichie**

Historiak kontatzen ditut nik. Eta “historia bakarraren arriskua” esaten diodan horri buruzko historia pertsonal batzuk kontatuko dizkizuet oraingoan. Nigeriako ekialdeko unibertsitate-kanpus batean hazi nintzen. Gure amak dio bi urte nituela hasi nintzela irakurtzen, baina nik uste lau urte hurbilago zirela, egia esateko. Goiz hasi nintzen irakurtzen, eta umeentzako literatura ingelesa eta estatubatuarra irakurtzen nuen.

Idazten ere goiz hasi nintzen. Zazpi urte nituela, gure ama koitaduak irakurri behar izaten zituen ipuinak idazten hasi nintzenean, arkatzez eta klaronezko ilustrazio eta guztiko haiek, irakurtzen nituenen antzeko historiak idazten nituen. Nire pertsonaia guztiak zuriak ziren, begi urdinakikoak, elurretan jolasten ziren, sagarrak jaten zituzten eta eguraldiari buruz jarduten ziren: “Bai ederki, eguzkia atera du”. Eta hori Nigerian bizi nintzela, inoiz Nigeriatik irten gabea nintzela eta elurrik ez geneukala, mangoak jaten genituela eta inoiz eguraldiari buruz hitzik egiten ez genuela, premiarik ez zegoelako. Jengibreko garagardoa edaten zuten nire pertsonaiek, nik irakurtzen nituen liburu-eta pertsonaiek jengibreko garagardoa edaten zutelako. Berdin zen nik hori zer zenik ere ez jakitea.

Argi erakusten du horrek zenbateraino eragiten eta moldatzen gaituzten historiek; txikitzen, batik bat. Nik pertsonaia kanpotarrak zituzten liburuak besterik ez bainuen irakurtzen, uste nuen horrela zela berez, liburu-kanpotarrei buruz jardun behar zutela eta nik ulertu ezinezko kontuak kontatu. Liburu afrikarrak deskribitu eta dena aldatu zen arte. Ez ziren asko eskura, eta ez ziren kanpoko liburuak bezain erraz aurkitzen. Chinua Achebe, Camara Laye eta halako egileei esker, literaturaz neukan pertzepzio mentala aldatu egin zen. Konturatu nintzen ni bezalako jendea, txokolate koloreko neskatilak, mototsean bildu ezinezko hile kizkurra zutenak, haiek ere ager zitezkeela literaturan. Ezagutzen nuenaz idazten hasi nintzen. Idazle afrikarrak ezagutzeari esker, liburuak zer diren azaltzeko historia bakarra ezagutzetik salbu izan nintzen.

Nire familia nigeriarra da, arrunta, klase ertainekoa. Aita irakaslea nuen, ama administraria eta, ohikoa zen bezala, inguruko herrietako jendea geneukan etxean lanean. Zortzi urte bete nituenean, morroi berria etorri zitzaigun etxera, Fide zuen izena. Oso familia pobreakoa zela besterik ez zigun esan amak hari buruz. Batatak eta arroza eta gure arropa zaharrak bidaltzen zizkion amak haren familiari. Afaria bukatzen ez nuenean, amak esaten zidan: “Jan!” Ez al dakizu Fideren etxeok ez daukatela ezertxo ere?” Errukia nion

nik Fideren familiari. Larunbat batean, herrira joan gintzaizkion bisitan. Haren anaiak egindako errafiazko otar tindatu eder bat erakutsi zigun bere amak. Harrituta zegoen, ez zuen uste-eta bere familiako inork ezer egiteko gairik bazuenik. Pobreak zirela bazekien, horixe besterik ez, eta ezin zituen ikusi beste ezer izaten. Historia bakarra nuen nik haietaz: pobreak ziren.

Urte batzuk beranduago, hortaz pentsatzen jardun nintzen Nigeriatik joan nintzenean, unibertsitatean ikasteko, Estatu Batuetara. 19 urte nituen. Nire gelakide estatubatuarra zur eta lur utzi nuen, ingelesez hain ondo hitz egiten non ikasi nuen galdetu zidan, eta harrituta laga nuen esan nionean Nigeriako hizkuntza ofiziala zein, eta ingelesa zela. Ni ezagutu aurretik ere nitaz errukitu izanarekin harrituta nengoen ni. Nire aurrean, ni afrikarra izategatik, hartzen zuen jarrera erruki lainezkoa zen. Afrikako historia bakarra bai baitzekien nire gelakideak, hondamendizko historia bakarra; eta historia hartan ezinezkoa zen afrikarrek bere antzik izaterik inola ere, ez zegoen tamala baino sentimendu konplexuagorik sortzeko aukerarik, ez zegoen parez pare konektatzeko aukerarik.

Ni Nigerian hazitakoa izan ez banintz eta Afrikari buruz daukadan irudipena hor zehar hedatuta dauden irudien arabera balitz, nik ere uste izango nukeen Afrika paisaia liluragarri eta animaliaz zein jende ulertezinaz betetako lekua zela, eta han zentzurik gabeko gerretan dabiltzala beti eta jendea pobreziaz eta IHESAz hiltzen dela, beren kabuz hitz egiteko gaitasunik gabe, atzerritar zuri abegikorak etorri eta noiz salbatuko zain. Nik neuk, txikitan, Fideren familia ikusten moduan ikusiko nituzkeen orduan afrikarrak. Mendealdeko literaturatik dator, nik uste, Afrikari buruzko historia bakar hau.

Ezinezkoa historia bakarrak hitz egitea botereaz hitz egin gabe. Munduko botere-egiturez pentsatzen dudak bakoitzean, Igbo hizkuntzako hitz bat etortzen zait burura "nkali". Substantibo hori itzulita, "bestea baino handiagoa izatea" esango genuke. Gure mundu ekonomiko eta politikoak bezalaxe, nkali printzipioaren bitartez definitzen dira historiak ere. Nola kontatzen diren, zenek kontatzen dituen, noiz, zenbat historia kontatzen diren...hori dena boterearen arabera doa, benetan.

Bestearen historia kontatzeko ahalmena ez ezik, historia hori behin-betiko historia bihurtzeko ahalmena da boterea. Estatu afrikarraren porrota kontatuz hasten badugu historia, eta ez estatu afrikarraren sortze koloniala kontatuz, historia erabat desberdina izango dugu.

Historia bakarrak estereotipoak sortzen ditu, eta estereotipoen koska ez da faltsuak direla baizik osatu gabeak direla. Historia bat hartu eta historia bakarra bihurtzen dute. Egia da Afrika hondamendiz betetako kontinentea dela; badira itzelezko hondamendiak, adibidez, Kongoko bortxaketak, eta badira hondamendi negargarriak, esate baterako, Nigerian lanpostu huts bakoitzeko 5.000 hautagai daudela. Baina badira beste historia batzuk ere, hondamendi ez direnak, eta horietaz ere hitz egitea inportantea da berdin-berdin.

Beti pentsatu izan dut ezinezkoa dela leku batekin edo pertsona batekin konpenetraterik leku horren edo pertsona horren historia guztiak jakin gabe. Historia bakar honen ondorioa hauxe da: herrien duintasuna ebasten du, gizakien arteko berdintasuna onartzeko oztopo egiten du, gure arteko desberdintasunak nabarmentzen ditu gure antzekotasunak nabarmendu beharrean.

Ettxera noan bakoitzean nigeriarren ernegarriei egin behar diet aurre berriz: huts egindako azpiegiturari, huts egindako gobernuari. Baina bere gobernuari esker ez, baizik bere gobernuaz beste, oraindik aurrera egiten duen herriaren ahalegin etsigaitza ere aurkitzen dut baita ere. Idazteko tailerrak zuzentzen ditut Lagos-en udaro, eta harrigarria da ikustea zenbat jendek ematen duen izena, zenbat jendek nahi duen idatzi, historiak kontatu.

Nire editore nigeriarrek eta biok irabazi-asmorik gabeko funtsa sortu dugu, Farafina Funtsa. Amets handiak ditugu: liburutegiak eraiki, lehengoak berritu eta liburutegiak hutsik dituzten estatuko eskoletara liburuak eramane, eta irakurtzeko eta idazteko tailer mordoak antolatu, gure historia ugariak kontatu nahi duen edonorentzat. Historiak badira zeozer. Historia asko dira zeozer. Historiak erantzeko eta gezurrez estaltzeko erabili dira, baina boterea emateko eta gizalegez jantzeko ere izan daitezke. Herri baten duintasuna urratu dezakete historiek, baina duintasun urratu hori osatzen ere badakite.

Alice Walker idazle estatubatuarrek honako hau idatzi zuen iparrera joandako familia hegokoiak. Atzean utzi zuten hegoaldeko bizimoduari buruzko liburua eman zien: "Eserita zeuden, liburua irakurtzen, ni irakurtzen entzuten, eta nolabaiteko paradisua errekuperatu genuen." Pentsamendu hauxe ekarri nahi dut bukatzeko: historia bakarra baztertzeko dugunean, konturatzen garenean inoiz ez dela historia bakarra inongo lekuren inguruan, nolabaiteko paradisua errekuperatzen dugu.

Gehiago jakiteko, begiratu hemen: http://www.ted.com/talks/lang/spa/chimamanda_adichie_the_danger_of_a_single_story.html